

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Txinara Nafarroatik egiten diren esportazioak bikoiztu egin dira azken hamarkadan, eta urtean ia 100 milioi euro ere lortu dira

*Barcina Lehendakariak Txinako enpresetako hogeiren bat ordezkariari egin die harrera, Nafarroan baitabiltza negozio-bidaian.*

Martes, 29 de abril de 2014

Txinara Nafarroatik egiten diren esportazioak bikoiztu egin dira azken hamarkadan. Urteko 100 milioi euro ere lortu dira. Zehazki, Txinara egindako esportazioen balioa 93,3 milioi eurokoa izan zen iragan urtean, aurreko urtean baino % 16 gehiago, eta enpresa esportatzaileen kopurua 230 izan zen. Hala, Txina Nafarroako produktuak erosten dituztenen sailkapeneko lehen hogeitaz postuetan da (17. postuan).

Azken urteetako datuen arabera, Asiako herrialdera gehien esportatzen duten sektoreak lehengaienak, produktu industrialenak eta ekipamenduen ondasunenak dira. Esportazio guztien artetik % 80 inguru hartzen dute.

Bestalde, Txika ere Nafarroaren hornitzaile garrantzitsu bihurtzen ari da. Iaz, Nafarroako inportazioen % 8,3 Asiatik ekarritakoa zen eta, % 4,6, Txinatik ekarritakoa.

Datu horien berri astearte honetan eman da Sodena sozietate publikoak antolatutako topaketan. Txinako eta Nafarroako enpresetako ordezkariak elkartu ditu, bi lurraldeetako enpresarien arteko lankidetzeta sustatzeko.



Barcina Lehendakariak hitza batzuk esan dizkie Txinako ordezkariari.

## Harrera eta enpresen topaketa

Jardunaldia hasteko, Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak harrera egin die Txinako hogeiren bat ordezkariari Gobernuaren egoitzan. Txinako merkatuak Nafarroako enpresei eskaintzen dizkien "aukera handiak" azpimarratu ditu, baita Foru Komunitateak Asiako herrialdeko enpresentzat duen "erakargarritasuna" ere. Gauzak horrela, "batera, lankidetzan jardun eta hazi egin gaitzke", esan du.

Lehendakariak, egin duen [mintzaldian](#), zera nabarmendu du, "gure industrializazio-maila handiari eta ikerketaren alde egindako apustuari esker, Nafarroako enpresak toki pribilegiatu batean daude, produktuak eta zerbitzuak nazioarteratzeko aukera handiagoak dituztelako". Horrez gain, gogorarazi du, iaz, lurraldeko aberastasunaren % 40 kanpora egindako salmentetatik lortu zela, ondorioz, Nafarroa Espainiako autonomia-erkidegoen artean lehena da esportazioetan, 7.300 milioi euro baino gehiagoko fakturazioa izan baitzuen.

Horren ondoren, bi lurraldeetako ordezkarien enpresa-bilera bat egin dute Iruñeko Gendulain jauregian, Foru Komunitatetarako eskaintzen dituen negozio-aukerak aurkezteko.

Nafarroako ordezkariak energiaren, automozioaren, nekazaritzako elikagaien industriaren, medikuntzaren, ingeniariaren eta ikerketaren sektoreko hogeiren bat enpresatako ordezkariak osatu dute. Horien guztien buru izan da Lourdes Goicoechea lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilaria. Bestalde, Txinako ordezkariak ere herrialdeko enpresatako hogeiren bat ordezkariak osatu dute, eta Zhu Bangzao Txinaren Espainiako enbaxadorea izan dute buru.

Bi eguneko bidaiaren programa (asteartea, apirilak 29, eta asteazkena, apirilak 30) Nafarroako enpresetara bisita eginda amaituko da. Besteak beste, Gestamp (automozioa), M Torres (energia berriztagarriak), Laboratorios Cinfa (industria farmazeutikoa), Gamesa (energia berriztagarriak/IKTak), Ikerketa Mediko Aplikatuaren Zentroa (bioteknologia), Aerosorgailuen Saiakuntza Laborategiak (energia berriztagarriak) eta Congelados de Navarra (nekazaritzako elikagaiak) enpresak ikustera joango dira.

Asiako herrialdeko ordezkariak enpresa hauetakoak dira: Txinaren Espainiako Enbaxada, Txinako banku industrial eta komertziala, Txinako Merkataritza Ganbera, Zhongxing Corporation S.L.U, Cosco Iberia, Xinhua agentzia, Citic Hic Gándara Censa S.A.U, Huawei Technologies Spain, China Certification & Inspection, Txinako Aranda Coated Solutions-Aceros eta Da Xiong Spain S.L.



Goicoechea lehendakariordea eta Bangzao enbaxadorea, erdian, Nafarroako eta Txinako enpresariekin.